



MENDI-ZALE

*Nere lagun maite Ojanguren tar Indaleki,
ri, bera dalako Euzkoen gogo-esnale eta argaz-
kari bikaña.*

Gure Oleskari ospatsu Arrese tar Emeteri'k ala digu:

«Usamendiko arizti zarra:
Keskaren osin beltzetik
Urrundu naiaz ixil ontara
eldu naiz gaxo... bakarrik!
Ama gabeko bizitz illuna
luzaro jasan eziñik
beste Amaren billa negarrez
alde egin det an beetik.
Negarres nator zure kolkora,
negarres jaiotz-erritik,
iñoiz entzuten ez dalako an
jardun arrotza besterik.
¡¡Mendi maitea: ez naiz beñere
irtengo zure basotik!!»

Mendigoizale maitia: Begira zer digun oleskariak eta oldostu ondo. Udaberria ge-
rekin degu eta berakin batera gu ere Mendira guaz, baña gizonak maiz okertzen
ditu biotzaren onerako bultzadak eta zamintazunaren edari garratza zarritan edan
biar izaten du.

Artzaiak goian dira, beren txistu zorrotzak mendi tartiam aitzen dira, txo-
ritxuak abeslari pozkiro dabilta, zugaitzak biziro agertzen dira, zelai eta zaziak
leretzu, eta guk Mendigoizaliak baguaz Mendingo gora eta gora.....

¿Zer oldozten degu? ¿Zure begien aurrian ikuzten dezun jaioterriak zer dakar
zure gogora.....?

Ibilli, jun eta jun bakarrik ezdegu egin bear anai Menditarra, gure Mendiak
badute edezti bikaiñ eta kelmentzu bat gure azaba zarrak utzia, guk ezagutu eta
maitatu bear degu guria dalako.

Mendi baikoitzak du bere edezti zatia, ¿nola ukatu guk bera ezagutzia.....? Ona emen Mendigoizale baikoitzan lana, lan ederra, lan maitekorra eta gere-geria.

Mendigoizale ibillera alaia eta ozazunkorra izanik errax egin giñezake bere edeztian alde zerbait.

Gogoratu gure azaba zarren berenganako maitetazuna, ikuzi eta ezagutu gure errien edeztia aiñ bikaña eta bulartzya eta orduan ezango degu gure biotzak tau-



Urko-Mendi.

pada gorra dabilzan bitartian: Gure azabak ziran benetako Euzkeldunak, aiek benetako Mendigoizaliak.

Ezgaitezen aitzu bada degun gauzarik ederrenekin Mendian geran bitartian, beren Edezti zaintzua eta Euzkera gure izkuntza garbi eta maitia.

Auek biak kendu ezker, ¿zer gelditzen zaie gure mendieri.....?

Galdera ituna, zekula aitzu bear ezdeguna guk Mendigoizaliok.

Mendi-zale bagera maitatu beren Edestia eta maitatu Euzkera, gogoz eta biotzez egizko maitazuna bezela.

Agur gure Mendiak, agur, maite zaitugu guriak zeratelako.

Zumarraga (Izaspí'n).

LINAZASORO TAR KARLA.

(Euzko Mendigoizale Batzakua).

(Fot. Ojanguren).